

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA): V. liburukien aurkezpena

Iaz Iruñean eduki genuen hitzordua, aurreko urteetako abiadari jarraiki Atlasaren 4. liburukia aurkezteko, hor irail akaberan; orain atzera Bilbora gatoz, 2011an Donostian 3gn. liburukia plazaratu ondoren, aitzineko urtean, 2010eko udaberrian lehen bi liburukiak ageriratu genituen leku berera, Euskaltzaindiaren egoitza nagusira.

Aurretikoen lorratzean antolatua da oraingo hau ere, baina beti zertxobait hobetuz eta urrats bat aitzina eginez. Papereko euskarriari eusten diogu oraindik ere, era digitalak zeharo hartuak gaituen aldi berriotan murgildurik egonagatik. Ikusgarri eta erakusgarri gertatzen baita beti ere hizkuntzaren barietate nagusiak mapa koloreztatueta eta paper ederrean begietaratzea, pintura ederren erreproduzioak bezala, eta ber denboran didaktikoa ere delakoan. Eta, untsalaz ez, baina inoizko denboran argindarrak huts egingo balu indarra ematen, gure erreferentziazko biblioteka nagusietan tinko iraun dezaten, kontsultatu nahi lituzkeen edozein jakinguraren mesedetan.

Aurreko lau liburukiak, gero datozkeen gehienak bezala, lexikoari buruzkoak ziren, tradizioko bizimoduaren gaineko eremu semantiko jakinetako kontzeptuei euskal hitzunek hor-hemen ematen dizkien izenak biltzen dituztenak, behar bezala sailkaturik.

Bostgarren honek, aldiz, euskararen morfologian sarrarazten gaitu, gramatika alorrean, beraz: izenaren morfologia lantzen da hemen, zehazki. Eta hurrengo datorkeen seigarrenak ere morfologia izango du mintzagai, baina aditzari buruzkoa.

Atlas bati dagokion bezala, euskaldun jendeak ahoz darabilen sistemaren berri zehatza eskaintzen digu liburuki honek, eta izen sintagmari zuzen doakionaz gainera, zeharka gramatikako bestelako hainbat zehetasun ere bai. Mapak banan-banan begiztatu eta euren barrenetako azalpen-oharrak irakurriz gero, berehala konturatzen gara, euskaldun jendeak darabiltzan forma ahoskatuk ez datozela beti bat idatzitako finkatua dugun “batua” ereduak euskarak proposatzen dituenekin. Hala da izan eta on da jakitea.

Liburuki honen edukiari dagozkion *soinuak* ere aurtengo urtean zehar sailkatu eta antolatu dira, bere momentuon idatziz dakusagunarekin batera erraz entzuteko moduan. Laster izango duzue horren berri ere. Ez da beharleku makala izan entzun-idatzi euskarri biak elkarretaratzea ere, aintzinamendu aipagarria, inolaz ere. Krisi eta murrizketen aldi honetan Euskaltzaindiak berariazko ahalegina egin du, gure datuak zehazkiago eta osoago ematen.

Mugatzaileaz abiatzen da. Mugatzaile neutroa, *-a*, eranstea euskal izenetan gertatu ohi diren aldaerak, bokalen aldetik eta intonazio aldetik. Lehen maparen irudia adigarritzat erabilia: *alaba* + *-a* ditugun aldaerak. Sartalde euskarari: *alabea*, *alabe*, *alabia*, *alabie*, *alabi*, esaterako. Edo erdi-erkialderantz joanda: *alába*, *alabá*.

Ondoko mapa-erantzutegietan, izen kategoriako hitz hautatuei mugatzailea eta funtzio-atzizki nagusiak –deklinabide-atzizkiak, beste hitzez esanda- singularrez eta

pluralez erantsirik jaso diren erantzunak biltzen dira gehienik, eta azken partean konparazio egiturak, zenbakiak, ordinalak eta orduak.

Galdeketako izenak, oin-hitzaren amaierako bokal, diptongo edo kontsonante diferenteen arabera hautatuak dira. Amaiera bereko bi hitz hautatu dira, biziduna eta bizigabea: *alaba-eliza*, *seme-etxe*, *idi-herri*, *asto-itsaso-zulo*, *katu-negu*, *zelai*, *hodei*, *behi*, *gizon*, *oilar*, *sagar*, *ahuntz* eta abar. Izen berezien morfologia ere kontenplatu da, bai persona-izenena, bai toki-izenena: *Maritxu*, *Madalen*, *Bilbo*, *Baiona*.

Aztergaitzat hautatu diren determinazio eta funtzio-marka nagusiak hauek dira: absolutibo mugatuaren singular-pluralak, ergatiboarenak, edutezko edo jabego genitiboaren era mugagabe eta mugatuak, inesibo neutroaren hiru erak eta bizidunetako singularra, *-tzat* prolatiboa, *-rik* partitiboa, soziatiboaren hiru erak, motibatiboaren hirurak, destinatiboarenak, instrumentalarenak, leku-genitiboaren hiru errak, ablatibo neutroaren hirurak eta bizidunetako mugatuak, berdin adlatiboarenak; noranzko adlatiboa eta muga-adlatiboa, eta denborazko muga-adlatiboaren *arte* era. Mugatzaile generikoaz gainera, *-ok* hurbil pluralaren erabilera ere aztertu da, kasu absolutiboan eta beste batzuetan. Atributu funtzioko izen-izenondoaren sintaxia ere ikertu da, *mediku* eta *handi* hitzen bidez.

Gogora ditzadan EHHA egitasmo erraldoi honetan hasieratik hona partaide izan diren guztiak:

- Zuzendari akademikoak, nire aurretik izan direnak: Jean Haritschelhar, Beñar Oiharzabal, eta Andolin Eguzkitza, azkenengoa neuror naizela.
- EHHA-ren arduradunak, hasieratik gaurdaino: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain.
- Liburu hau burutu duten teknikariak: Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar eta Aritz Abaroa.
- Lan-taldea: inkesta-egiten, datu-sartzen, mapa-elaboratzen, soinu-sartzen, eta ediziorako azken bertsioa ontzen jardun duten kide guztiak: Arejita, Adolfo, Atutxa, Isaac; Aurrekoetxea, Gotzon; Camino, Iñaki; Echaide, Ana María; Etxebarria, Jose María; Etxebeste, Izaskun; Haritschelhar, Jean; Letamendia, Juan Antonio; Oyharçabal, Beñat; Segurola, Koro eta Videgain, Xarles.
- Euskaltzaindiaren informatika taldea, Iñaki Kareaga buru dela.

Beren-beregi eskertu nahi nituzke EHHA egitasmoari babesa eman diotenak erakundeak, hasieratik gaurdaino:

- Eusko Jauriaritza,
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Nafarroako Gobernua.
- 1994az geroztik urte guztiez Euskaltzaindiaren gisa horretako egitasmoentzat bere laguntza eman duen Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.
- Urte batzuetan lagundu duten baita: Akitaniako Kontseilua, Europako Batasuneko Hedadura Guttiagoko Hizkuntzen Batzordea, Frantziako Irakaskintza eta Ikerkuntza Ministerioa, Europako Harremanetako Ministerioa, eta Baionako Euskal Ikerketa taldea (CNRS, Michel de Montaigne - Bordele 3eko Unibertsitatea eta Paueko eta Aturriko Unibertsitatea - UPPA).

Oraindaino argitaratu bost liburukiok babestu dituen erakundea: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, gaur egungo Laboral Kutxa. Erakunde honen babes irmoa dugu oirangoan ere, aurrekoetan bezala.

Euskaltzaindiak orain dela 30en bat urte abiarazi zuen ametsezko egitasmo erraldoi hura fruituak ematen ari da: euskararen dialektologia atlasa argitara dator alez ale eta urratsez urrats, geldoz baina sendoz. Europako hizkuntza nagusien dialektologia atlasen parean dihardugu, XIX. mendean Iztueta folklore alorrean euskaraz goiztiar izan zen bezala.

Azkue gure lehen euskaltzainburuaren gudu aurretiko lehen atlasgintza urrats eraginkorrak, beste bide eta metodo batzuekin bada ere, b inkestak. Gudu ondoko isilaete bidean ditu Euskaltzaindiak. Luis Mitxelena, Jacques Allières eta beste batzuk izan dira gaur egungo ikuspegi eta metodologiaren argi-emaileak, eta larogehitaka urteen hasieran abiaraz izuen gure Akademiak egitasmo nagusi hau, aurretiaz jakinik anitz zailtasun igaro eta epe luzea joko zuela berau burutzeak. “Denborak erakusten du elurra mendian” eta halaxe EHHA egitasmoaren urtean urteango aleak ere, aurten abendu giroan, “gabon sari” itxuran, Xabier Maria Munibe azkoitiarraren hitz berberez esateko.

Zorionak eta on degiegula guztioi ekarri berri honek.

Adolfo Arejita
2013-12-12